ANTZOKI ILUNA: euskalduntzearen 9. eta 10. urratsak langaiz hornitzen

Pello Esnal

Argitara berria du HABEk, euskalduntzearen 9. eta 10. urratsetarako, ANTZOKI ILUNA izeneko langai-bilduma. Guztira hogeitahiru audiokasete dira eta beste hainbeste liburuxka, hogeitahiru orduko entzungaiez eta bostehun orrialdeko irakurgaiez hornituak.

Bernardo Atxagak idatzitako zazpi istorioek ematen dute aukerarik nola lehenengo zortzi urratsetan ikasitakoa berrikusi eta lantzeko, hala euskalduntzearen 9. eta 10. urratsetako bidea urratu eta ibiltzeko. Baita zenbait gogoeta egiteko ere. Gureak honako bederatzi hauetan bilduko ditugu.

1 HABEren Glotodidaktika Zerbitzuko Euskalduntze Saila bere sorreratik ari da helduen euskalduntze-ikasprozesua programa didaktikoz hornitzen. Lau emaitza ditugu gaurdainoko ibilbidearen mugarri:

a. *Helduen euskalduntzerako programazioa (1981)*

Sortu eta bi hilabetera eman zuen argitara HABEk lehen programazio-liburu hau, euskalduntzearen oinarrizko maila zehaztuz eta hizkuntz formen inguruan programatuz. Lau maila bereizten zituen, guztira 500 ordu hartzen zituztenak.

b. *Helduen euskalduntzea programatzen-84 (1983)*

Euskalduntzearen programazio-liburu berri honek, besteak beste, hutsetik EGAk eskatutako mailaraino zedarritu zuen ikasprozesua, urraska (100-125 orduko ikastunitateka) zedarritu ere, zehatz samar lehen lau urratsetan, nasaiago hurrengo lauetan eta 8. urratsetik EGAra bitartekoa 400-500 ordutan aurrikusiz; ikasprozesu osoa, berriz, 1.200-1.500 ordu ingurukoa ikusten zuen. Programazio-liburu honek, bestalde, hizkuntz formaz gainera, trebetasun-mailaz ere zehaztu zuen ikasprozesua.

ZUTABE 25 (1991), 6-14 orr.

c. *Kultura Sailburuaren Agindua, 1987ko urtarrilaren 7koa*

Agindu honek zertxobait birmoldatu zituen euskalduntzearen lehen lau urratsak eta zehatzago eman bostgarrenetik zortzigarrenera bitartekoak, batez ere bostgarrena eta seigarrena; era berean, edukiz bete zituen zazpigarrena eta zortzigarrena, EGAra bitartekoak zedarritu gabe utzita. Trebetasun-mailak ere zehatzago adierazi zituen, urrats bakoitzari egokituz orduraino mailaka emana.

d. *Kultura Sailburuaren Agindua, 1989ko azaroaren 17koa*

Bi aurrerapauso funtsezko ekarri zituen agindu honek euskalduntzearen programagintzara: 1) bederatzigarren urratsetik EGAk eskatutako mailara artekoa zedarritzea eta 2) programaziotik programara jauzi egitea.

Lau urratsek zedarritzen dute bederatzigarren urratsetik EGAk eskatutako mailara artekoa, hizkuntz trebetasun bakoitzean lortu beharreko maila adieraziz, baina hizkuntz formen aldetiko eduki berririk aipatu gabe.

Programaziotik programara arteko jauzia adierazteko, hona hemen zer dioen *Alfabetatzeko/euskalduntzeko programak* liburuxkan (23. or.):

> Programa zabalagoa da eta orokorragoa, honako hau bezala. Programazioa, berriz, zehatzagoa eta xeheagoa, tokian tokiko behar, baliabide eta gainerako baldintzapenei egokitua.
>
> Programa hau oinarritzat hartuz, euskaltegi bakoitzari dagokio bere programazioa egitea, nola helburuak finkatuz, hala erabiliko dituen baliabideak eta jarriko dituen ebaluazio-probak zehaztuz, euskaltegiaren berezitasunak eta ikasleen beharrak kontuan izanik.

Dena den, bigarrengo aurrerapauso hau ez da erabat berria; aditzera emana bait zegoen *Helduen euskalduntzea programatzen-84* liburuan, nahiz eta ez hitz egokiz agian. Hona hemen nola hasten den liburua.

HABEk, Euskal Herriko Lurralde Autonomoko helduen euskalduntzerako programazio ofizial berri hau eratzerakoan, euskararen irakaskuntzan eginiko lana biltzea izan du gogoan eta eginkizun dagoena bideratzea helburu.

Honenbestez, irakasle, euskal eskola eta euskaltegi bakoitzaren esku geratzen da, orientabide ofizialak gidari dituela, eguneroko zeregina tokian tokiko baldintzapenei egokitzea. Izan ere, programa ez da ez metodoa, ez testuliburua; zerbait izatekotan, mugarriak jarri eta minimoak markatzen dituen bide-gidaria da. (5.or.)

2 Hiru printzipio nagusitan oinarritu da HABE helduen euskalduntzearen programagintzan. Printzipio horiek izan ditu HABEk behin eta berriro gidari, programazioak eta programak moldatu, hobetu eta osatzean:

a. *Programaren lehentasuna*

Metodo eta metodologiak baino lehenagokoa da programa, langaien eta ariketen aurrekoa, ebaluazioaren erreferentzi puntu ezinbestekoa. Programak bideratu(ko) du metodoak uztartzea, euskaltegien arteko

zubi egitea, eta langai eta ariketak bildu, sortu eta argitaratzea. Programa da irakaskuntzaren aldagaietako lehena eta gainerakoak batera biltzeko aukera ematen duena, beti ere irakasle-ikasleen zerbitzuan.

Programari lehentasuna eman izanak argitzen du, besteak beste, HABEk bere metodologia propiorik ez sortu edo landu izana.

b. *Programa: akordio zabalaren emaitza eta hainbat ekarriren bilgune*

Programak bildu egin behar du, baliabide ezberdinak aztertu, ikuspegiak bateratu eta osatu. Hasieratik jo zuen HABEk programagintzan ildo horretatik. Hala, "Jalgi Hadi", "Jo-ta-ke", "Hitz egin"; "Euskera mailaka", "Euskara, hire laguna"; "Euskalduntzen", "Euskara hizkuntz ariketak", "Euskera bizitik" eta "Erriaren euskera batua" metodo eta liburuak hustu eta uztartzen saiatu zen "Helduen euskalduntzerako programazioa" liburua. Eta bide beretik jarraitu zuen hurrengo "Helduen euskalduntzea programatzen-84" programazio-liburuak ere, bertara bilduz bi urtetan eskuratutako zenbait lanen ekarria: HABE eta ELKARLAN euskaltegietako eta AEKren hormirudien programazioak; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko "Hizkuntzen irakaskuntza. Mailaketa gramatikala: metodoen azterketarako galdekizuna" eta "Euskararen gaitasun-Agiria: Programa" liburuak; Europako Kontseiluaren "Atalase Maila" proiektua eta HABEren Alfabetatze Saileko "Helduen alfabetatzerako programazioa". Eta irizpide berdinarekin jarraitu du HABEk azken bi emaitzak lantzen ere, euskararen esparruko programazioak aztertzen eta erdal hizkuntzen irakaskuntzetatik eskuratutako ekarriaz hornitzen.

c. *Programa: ezagunetik ezezagunera*

Aurrez egindako lanak eta lortutako emaitzak hartu ditu HABEk oinarritzat euskalduntzearen programagintzan, erabilitako bibliografiak eta emandako urratsek garbi adierazten dutenez: batetik, oinarrizko mailetako programaziotik hasi zen eta goiko mailetara zabalduz joan eta, bestetik, hizkuntz formak hartu ziren ardaztzat eta trebetasunez trebetasun lortu beharreko mailaz osatuz joan.

3 Ezaugarri jakin batzuk ditu HABEk moldatutako euskalduntzearen azken programak, aurreko programazioek zituzten berberak. Honako hauek aipatuko ditugu hemen: hizkuntz formak ditu ardatz eta bide-urratzaile; urratsetan dago artikulatua, ebaluazio jarraiaren zerbitzuan; eta ikaslea hizkuntz baliabidez ahalik eta azkarren hornitzera bilatzen du.

a. *Hizkuntz formak ardatz eta bide-urratzaile*

Arrazoi bat baino gehiagorengatik hartu dira hizkuntz formak ardaztzat euskalduntzearen programagintzan. Funtsean aurreko puntuan aipatutako printzipio nagusiengatik. Izan ere, nola bideratu bestela hainbat euskaltegi, irakasle-talde, metodo eta ikuspegi desberdinen arteko zubigintza? Bestalde, nonbait oinarritzekotan, egina dagoenean oinarritu behar, balizko zimenduetan baino areago.

Noski, ardatz eta bide-urratzaile izateak berez eskatzen du, batetik, ardatza jantzi, hornitu eta osatzea eta, bestetik, urratutako bidea zabaldu eta sendotzea. Bestela esanda, euskaltegi bakoitzeko pro-

gramazioa ezin muga daitekeela ez hizkuntz forma hutsetara, ez hizkuntz formak behin eta modu bakarrean ikastera. Are gehiago: programan lineala dena bestelakoa behar du izan programazioan; eta programan ardatz dena gerta daiteke besterik programazioan, beti ere osagai izaki.

Eta programatik programaziora pasa gabe ere, programan bertan dute hizkuntz formek elementu osagarri, mugatzaile eta zehatzailea: urrats bakoitzaren bukaeran ikasleak lortu beharreko trebetasun-maila. Honela dio *Alfabetatzeko/euskalduntzeko programak* liburuxkak (23.or.):

> Elkarrekin estu lotutako bi osagai ditu programak: trebetasun--mailak eta hizkuntz formak.
>
> Urratsez urratseko trebetasun-mailek adierazten dute urrats bakoitza burutzean zer egiteko gai izan behar duen ikasleak trebetasun bakoitzaren arloan. Hizkuntz formek, berriz, ikasleak urrats bakoitzean zehar landu beharreko hizkuntz edukien berri ematen dute.
>
> Baina ez dira elkarrekin zerikusirik ez duten osagaiak, elkarren zerbitzuan landuz elkarrekin garatu behar dutenak baizik, euskararen ikasprozesuan zehar. Beraz, ez luke programa hau egoki ulertuko, bere programazioan hizkuntz trebetasunak alde batetik eta hizkuntz formak bestetik eratuko lituzkeenak.
>
> Esan gabe doa urrats batean landutako hizkuntz formak ez direla urrats horretan erabat hustiratzen; horrexegatik, hain zuzen, urrats bakoitzean aurrekoetan landutako hizkuntz formak berriro ere landu beharra eta azken lau urratsetan hizkuntz forma berririk ez azaltzea.

b. *Urratsetan artikulatua, ebaluazio jarraiaren zerbitzuan*

Hamabi urratsetan dago artikulatua euskalduntzearen ikasprozesua. Eta halaxe azaltzen zen 1a *Helduen euskalduntzea programatzen--84* liburuan, diseinu hutsean bazen ere. Honela dio hitzez hitz 18. orrialdean:

> Mailaketa gehiago zehazteko, unitate txikiagotara jo behar da. *Urratsak* dira beroiek. Urratsa eskola-ordutan definituz, 100-125 orduri dagokien aurrerabidea adierazten du. Beraz, hamabi urrats dagozkio guztira euskalduntze prozesu osoari.

Horra hor lehenbiziko aldiz *urratsa* hitza, euskalduntze-prozesuaren unitatetzat jo eta definitua. Bi beharrak eraginda jokatu zuen horrela HABEk: zenbait euskaltegitan ematen ari ziren hileroko (100-125 orduko) ikastaroak bideratu beharrak eta ebaluazio jarraiaren sistema erraztu beharrak.

Garbi dago errazago bideratu zela lehenengoa bigarrena erraztu baino. Oraindik ere ez bait da hainbat euskaltegitan ebaluazio jarraiarekin asmatu. Eta, hain zuzen, berriro ere ebaluazio jarraiaren zerbitzura dago zuzendua bederatzigarren urratsetik EGAk eskatutako mailara urratsez urrats zedarritu izana.

c. *Ikaslea hizkuntz balabidez ahalik eta azkarren hornigarri*

HABEk taxututako euskalduntzearen programa guztiek dute ezaugarri bera: ahalik eta hizkuntz forma gehienez beteak dituztela lehen urratsak. Helburu garbira jotzen du hizkuntz formak lehen urratsetan pilatze horrek: ahalik eta azkarren egitea ikaslea hizkuntz baliabideen jabe, ahalik eta azkarren has dadin hizkuntza erabiltzen, euskaraz komunikatzen.

Egoki eta zuzen ulertu behar dira, ordea, lehen urratsetako hizkuntz formen pilaketa eta gainerako urratsetako banaketa soila. Ez bait dira gauza bera hizkuntz formak besterik gabe ikastea eta irakurriz eta entzunez ulertzea eta idatziz eta ahoz erabiltzen jakitea. Hizkuntz formak ez bait dira lehen kolpetik eta erabat eta behin-betirako ikasten. Horixe bera adieraztera datoz gorago aipatutako hitzak:

> Esan gabe doa urrats batean landutako hizkuntz formak ez direla urrats horretan erabat hustiratzen; horrexegatik, hain zuzen, urrats bakoitzean aurrekoetan landutako hizkuntz formak berriro ere landu beharra eta azken lau urratsetan hizkuntz forma berririk ez azaltzea.

4 HABEren langaigintza eta ebaluaziogintzarekin estu lotuta ulertzen da bere osotasunean helduen euskalduntzearen programagintza. Hain dira berez hirurak uztarri berekoak, hain izan dira hala HABEren ihardunean ere.

Aldez aurretik egindako langaiak izan zituen HABEk gidari programagintzaren lehenengo urratsetan. Denon eskueran zeuden langai haiek bazituzten beren programazioak, batzuek ageriago eta besteek ezkutuago, neurri handian bat zetozenak zenbait puntu funtsezkotan. EGAren inguruan antolatutako ebaluaziogintzak lagundu zuen bigarren aldian urratzen langaiek urratu gabe utzitako ibilbidea. Lehenengo ekitaldian lehenengo lau urratsak egituratu bezala, diseinatu ziren bigarrenean hurrengo lauak eta goldatu azkenekoak, gero langaigintzaz zehaztuko zirenak eta direnak.

5 Aurreko lau puntu nagusi horietan islatutako testuinguruan sortu da ANTZOKI ILUNA, helduen euskalduntzearen 9. eta 10. urratsetako langai-bilduma, honako hitz hauek aurkeztua:

> Behin euskalduntzearen zortzigarren urratsa gaindituz gero, euskara-ikasleak ezaguna du euskararen hezurdura; ikasia hainbat hizkuntz forma, molde eta egitura; eskuratua zenbait giltza; garatu samarra euskaraz mintzatuz nahiz idatziz komunikatzeko gaitasuna... Izan ere, lortuak bait ditu, besteak beste, Euskalduntzearen Programak mintzamen- eta entzumen-trebetasunetan zortzigarren urratserako jarritako helburuak:

Mintzamenean

> Ahalegina eskatuko dion arren eta nahiz eta zenbaitetan solaskideari laguntza eskatu behar izan, jatorrizko hiztunekin eguneroko harreman normalak edukitzeko gauza izatea.

Entzumenean

Ikasleak ikasitako gauzak ukitzen dituenean, eta nahiz eta hiztuna berari ez zuzendu edo arreta oso-osoa jarri ez dionean ere, jatorrizko hiztunaren solasaldia ulertzeko gai izatea. (Dena den, jatorrizko hiztunaren hizketa oso kolokialari jarraitzeko zailtasunak izango ditu.)

Beraz, zortzigarren urratsa gainditutako euskara-ikasleak, bideratua ez ezik, oso aurreratua ere badu bere buruaren euskalduntzea. Baina beste lau urrats geratzen zaizkio oraindik EGAk eskatutako maila iristeko, lehendik ikasi eta lortutakoa sendotu eta bide berriak urratzeko. Lau urrats horietan bi alor zabal izango ditu langai: batetik, ezezagunak zaizkion hitzak, hitz eratorriak eta hitz elkartuak barne; bestetik, berriz, itxuraz eta izatez apalagoak eta errazagoak izaki, hizkuntzari jatortasuna, bizitasuna eta arintasuna ematen dioten hizkuntz forma, molde eta egituren alorra.

Euskalduntzearen programak honela adierazten du hizkuntz trebetasun bakoitzean bi alor horietan egin beharreko aurrerabidea bederatzigarren eta hamargarren urratsetan:

BEDERATZIGARREN URRATSA

Mintzamenean

Gai edo egoera guztiei dagozkien informazioak adierazteko nahikoa erraztasun izatea, nahiz eta arazo korapilotsuei heltzeko zailtasunik izan, elkarrizketa jarraian esatera doana pentsatu behar izan eta bere ideiak hobeto adierazteko hauek egokitu edo birformulatu behar izan.

Entzumenean

Nahiz eta jatorrizko hiztunarentzat bezain erraz ez izan hizkuntzaren elementu berriak atzematea eta bapatean estiloa edo gaia aldatzea ulermenarentzat oztopo izan, solasaldia ulertzeko gai izatea, arreta jarriz. (Dena den, elkarrizketari arreta oso-osoa jartzen ez bazaio, hizkera kolokialaren eraginez ñabardura batzuk galdu ohi ditu.)

Idazmenean

Erredakzio-lanik arruntenak eraginkortasunez, dibertsitatez eta arrazonamenduz garatuak burutzeko gauza izatea.

Irakurmenean

Ikaslearentzat interesgarri diren testuak ulertzeko gaitasuna izatea. Hizkuntzaren esaera, lotura eta bihurgune asko atzeman eta ulertzeko gauza izatea eta, gai arrotzen inguruko testuetan izan ezik, hiztegirik ez erabiltzea.

HAMARGARREN URRATSA

Mintzamenean

Hizkuntz egoera arruntetan erraz espresatzeko eta hiztegi normala

erabiltzeko gaitasuna izatea, nahiz eta beste egoera batzuetan oraindik ere zalantzak izan eta batzuetan solaskideek argibideak eskatu.

Entzumenean

Nahiz eta zailtasunak izan elkarrizketa oso kolokialari jarraitzen, jatorrizko hiztunaren solasaldia ulertzeko gai izatea.

Idazmenean

Nahiz eta oraindik ere hiztegiaren beharra izan eta jatorrizko hiztunek baino aski motelago idatzi, erredakzio-lanak eraginkortasunez burutzeko gai izatea.

Irakurmenean

Nahiz eta irakurtzeko erritmoa eta erritmo hori testu eta gai desberdinei egokitzeko malgutasunak jatorrizko hiztunengandik bereizi, testuak ulertzeko gaitasuna izatea. Hizkuntzaren esaera, lotura eta bihurgune asko atzeman eta ulertzeko gauza izatea eta, gai arrotzen inguruko testuetan izan ezik, hiztegirik ez erabiltzea.

Hain zuzen ere, euskalduntzearen bederatzigarren eta hamargarren urratsetarako berariaz moldatu izanik, aipatutako bigarren alorra du langai ANTZOKI ILUNA izenez HABEk argitaratutako material-bildumak, gida-liburu eta guzti. Bertan aurkituko dituzte irakasle-ikasleek jatorrizko hiztunen iharduna eta jarioa; hizketa-moduak, erregistroak eta esamoldeak; hizketa kolokialari dagozkion doinua, erritmoa, hizkuntz formak...; hitz batean, ahozko euskararen muina, taxua eta taupada.

ANTZOKI ILUNA zazpi istorio dira guztira, hogeitahiru kasete eta beste hainbeste liburuxkatan banatuak (istorioko bi atal, kasete eta liburuxka bakoitzeko):

–"Amazonas ibaian barrena" (9 atal)

–"Amaren maitasuna bezalakorik ez duzu inon aurkituko" (8 atal)

–"Emakume bakartia" (6 atal)

–"Pelotari zaharraren ajeak" (2 atal)

–"Errugabeko txoriak ere erortzen dira sarean" (4 atal)

–"Su-koloreko ilea zuen emakumea" (4 atal)

–"Sara: Zumalakarregiren zelatari" (12 atal).

6 Euskalduntzearen 9. eta 10. urratsetan ahozko euskarak duen garrantziaren ondorio da ANTZOKI ILUNA langai-bilduma, nahiz eta, jakina, beste urratsetan ere ahozko euskara lantzen den eta ahozko euskarara ez den mugatzen urrats hauetako edukia.

Gorago aipatutako aurkezpenean adierazi bezala, bi alor zabal ditu langai zortzigarren urratsa burutu eta aurrera jarraitzen duen ikasleak: "batetik, ezezagunak zaizkion hitzak, hitz eratorriak eta hitz elkartuak barne; bestetik, berriz, itxuraz eta izatez apalagoak eta errazagoak izaki, hizkuntzari

jatortasuna, bizitasuna eta arintasuna ematen dioten hizkuntz forma, molde eta egituren alorra". Aurkezpenean bertan irakur daitekeenez, bigarren alorra lantzeko prestatu da ANTZOKI ILUNA; izan ere, "bertan aurkituko dituzte irakasle-ikasleek jatorrizko hiztunen iharduna eta jarioa; hizketa--moduak, erregistroak eta esamoldeak; hizketa kolokialari dagozkion doinua, erritmoa, hizkuntz formak...; hitz batean, ahozko euskararen muina, taxua eta taupada".

7 Euskalduntzearen 9. eta 10. urratsetan langai den ahozko euskara estu lotuta dago alderdi fonetiko eta fonologikoarekin, baina ez da horretara mugatzen.

Euskara ikasten hasi zenetik ari da ikaslea ebakera, azentua eta intonazioa lantzen. Eta ildo beretik jarraituko du euskalduntzearen goi-mailako urratsetan ere, baina kontuan izanik oso-osorik hartzen duela hizkuntza ahozko euskarak, alderdi morfosintaktiko, semantiko eta guzti hartu ere.

8 Euskalduntzearen 9. eta 10. urratsetan langai den ahozko euskara estu lotua dago mintzamenarekin, baina ez da horretan agortzen.

Mintzamenarekin (eta entzumenarekin, jakina) du batez ere zerikusia ahozko euskarak, baina baita idazmenarekin (eta irakurmenarekin) ere. Badago puntu honetan zer landu eta sakondurik. Dena den, bi testu aipatzera mugatuko gara.

Hona hemen lehenengoa, lokailuez diharduen Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika: lehen urratsak-III* liburutik hartua (18. or.):

> Koherentzia duen testu baten barnean kokatuak dauden perpausen artean harremanak gertatzen dira. Harreman hori juntagailuen edo menderagailuen bidez gertatzen bada, lotutako perpaus horiek perpaus elkartu bat osatuko dute, perpaus bat, nolanahi ere, eta perpaus den neurrian, gramatikaren aztergai izango da.
>
> Baina perpausen artean gerta daiteke beste mota bateko lotura ere, solas mailakoa, gorago aipatu duguna bezain hertsia ez dena. Hau da, hain zuzen, hemen aipatu nahi dugun lotura, solas mailakoa, alegia.
>
> Sarritan perpausek bere eskuko izaten segi dezakete nahiz ager daitekeen elementuren bat –lokailua, hain zuzen– perpaus horiek elkarrekin duten lotura semantikoaren berri ematen diguna. Jakina, lokailu hauek perpaus elkartuetan ere ager daitezke, bereziki juntagailuren baten arrimuan.
>
> Jatorriz bestelakoak izanik, gerora zeregin honetara erakarritako hitzak edo esapideak dira lokailuak gehienetan. **Bestela** eta **halere** (=hala ere), adibidez, aditzondo dira, izatez. Eta horrela, gehienak.

Testuan bi aldiz aipatutako "solas mailakoa" hori azpimarratu ondoren, bigarren adibidera pasako gara. ANTZOKI ILUNAko *Emakume bakartia* izeneko istoriotik hartu dugu (59. or.):

> Ia begiak kliskatu gabe irakurri zuen albistea Sebastian Oterok. Artikuluan, bere maitaleak hiltzeko ohitura berezia zeukan emakume baten berri ematen zen. Hemeretzi urterekin ezkondu zela, eta artean ez

zituela hogei urte bere senarra hil zuenean. Beste bi gizonen heriotza ere leporatzen ziotela: senarraren ondotik hartutako bi nobioena, hain zuzen. Emakumearen gorpuzkera eta itxuraren xehetasunak zetozen gero; Ireneri nahiko ondo egokitzen zitzaizkiola pentsatu zuen hotzikara batez Sebastianek. Azkenean, hiltzailearen izena zetorren: Paulina Basala. Libre zebilela eta erne ibiltzeko.

Idazkeraz antzekoak diren testu askotxorekin egingo dugu topo ANTZOKI ILUNAn. Aukera polita idazmena ere lantzeko.

9 Euskalduntzearen 9. eta 10. urratsetan langai dugun ahozko euskara estu lotua dago berbaldi girotuarekin eta baita, neurri batean, narrazioarekin ere.

Testu-gramatikan sartu gara zortzigarren puntuan. Eta testu-gramatikan jarraitzen dugu bederatzigarren honetan ere, oraingoan Jean Paul Bronckart-en haritik eta Labayru Ikastegiak argitara berria duen *Hizkuntzaren psikopedagogia: testu motak, funtzionamendua eta didaktika* liburuaren eskutik. Hona hemen nola bereizten dituzten egileek 157. orrialdian *berbaldi girotua, narrazioa* eta *berbaldi teorikoa:*

a. Berbaldi girotua zeri deritzaio, kontestuarekin harreman zuzenean sortutako diskurtsoari, bereziki esatari-solaskide identifikagarriekin, enuntziazio une eta denbora jakin batean, eta batiere, kontestuaren erreferentziaz antolatutakoari. Berbaldi girotuaren adibiderik garbiena elkarrizketako testua litzateke, batipat enuntziazio-kontestua ageriko egoeraz edo gertaeraz baldin bada.

b. Berbaldi teorikoa ere kontestuaren erreferentziaz sortzen da sortu, baina aurrekoan ez bezala, nolabait kontestuarekiko abstrakzioa eginez. Honenbestez, diskurtso teorikoa ezin lotu daiteke enuntziazio egoera ezagun batekin. Egia esan, diskurtso mota honetako testuek leku-denporazko koordenada zehatzak dituzte, esatari konkretuak, eta solaskide-entzule jakin batzuri zuzenduak daude, baina gauza da enuntziazio-parametro hauei (esataria, solaskidea, espazioa...) ez zaiela inolako erreferentziarik egiten. Testu teorikoaren barnean formarik behinena, prototipikoena, aldenduena edo ertzekoena, diskurtso zientifikoa litzateke, edonon eta edozein solaskiderentzat balio duelarik.

c. Narrazioak, berriz, enuntziazio egoerarekiko harreman ez-zutenak eta baldintzatuak agertzen ditu. Horretarako, lehenbizi, abiapuntu edo kokapen-puntu bat hartaratuz, eta ondoren beronen arabera gauzak eta gertaerak antolatuz.

Oraingoz besterik ez.